Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Enrike Aranzabal Olaeta Iturri

Gernika-Lumo, Bizkaia
(1924-2019)



Aurkibidea

Biografia



1924an jaio zen Barrenkale kaleko 24. zenbakian, Boliña hotela dagoen tokian. Aita Elorriokoa zuen, Elgetako Iturri baserritik bertara joandakoen semea, eta ama gernikarra. Bere aita Astra arma-lantegira etorri zen lanera. Aitona San Juan elizako sakristaua zen, 'Jose Martillo'. Barrenkaletik Errenteria auzora joan ziren, baina sei urterekin-edo Portu kalera joan ziren, eta bertan egon ziren bonbardaketara arte. Umetan San Juan Ibarra inguruan aritzen zen kaleko beste ume askorekin batera. Bonbardaketan etxe barik geratu zirenez, Forura joan ziren eta bertako harrobiko kobazulo batean pasatu zuten lehenengo gaua. Gernikarako bidea zarratuta zegoen eta hurrengo gaua Tiloetako etxe batean pasatu zuten, eta ostean anbulatorio ondoko jesuiten etxe batean bi gau. Azkenik Urremendi baserrira joan ziren, eta bertan egon ziren zortzi urtez, sindikatuetako etxeetako bat eman arte. Umetan Pasealekuko eskoletan ibili zen 14 urtera arte, eta dotrinara Andra Mariara joaten zen nahiz eta beraien eliza San Juan izan. Ikasketak bukatu ostean, Jipsan (geroko Dalia) hasi zen lanean eta hiru urtez egon zen bertan. Gero, aroztegian hasi zen beharrean eta horretan ibili da beti, eraikuntza alorrean arotz lanetan. Ezkondu aurreko bost urteak itsasoan igaro zituen zerbitzari legez. Gernika-Lumoren berreraikitzean ere lanean aritu zen "Banco de Vizcaya" eta merkatu-plaza eraikitzen, besteak beste. 29 urterekin ezkondu zen Gernikan, Sukarrietan jaiotako, baina Gernika-Lumon hazitako emaztearekin. Gerra aurreko

Zintak

GER-030

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2010-05-04
- **Iraupena**: 149 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. 'Jose Martillo' aitona; San Juan Ibarran olgetan

- **Erref**: GER-030/002
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:01:14. **Bukatu**: 00:04:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:
Bere aitaita sakristaua izateaz gain zapataria ere bazen. Barrenkale kalean zuen zapata-denda 'Jose Martillo' deitzen zioten; umeei mailua botatzen zieten 'Jose Martillo' deitzerakoan. 'Txankan' denda Ocho de Enero kaletik San Juanerako izkinan zegoen. Beraiek San Juan Ibarrako Portu kalean bizi ziren; erreka izkinako zapoak zirela dio. San Juan Ibarran bertan jolasten zuten neska-mutilek elkarrekin: txorro-morroka, sokadantzan... Eskolara joateko bidean arandelaka eta tronpaka ibiltzen ziren. Pasealekuko eskoletan ikasi zuen.

2. Barrenkale eta San Juan inguruko kontuak, gaiztakeriak

- **Erref**: GER-030/003
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:04:07. **Bukatu**: 00:06:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Gernika gaur egun baino askoz txikiagoa zen; hori dela-eta, denek ezagutzen zuten elkar. 3 neba-arreba Txobertxun etxean jaio ziren, gaur egin Boliña hotela dagoen tokian; etxe azpian, Katalinen estankoa zegoen. Beste anaia bat Errenterian jaio zen, eta beste bat San Juan Ibarran. San Juan Ibarrakoek, "Zapotxuek", gaiztakeria asko egiten zituztela dio. Sasoi batean, San Juan kalean tifusa egon zen eta fama txarra zuen.

Transkripzioa
- Gero diferentzidxe egoten zan Gerniken ba txikidxaua izen zalez ezetu be danak, etzeko danak. Joaten ziñen Barrenkalle kaletik, gu jaidxo giñen hiru bai, hiru jaidxo giñen geur Hotel Boliña barridxe dauen lekuen Txobertxun etzie izan zan, ta hantxe jaidxo giñen. Bai, Hotel Boliña barridxe dauen lekuen egon zan hantxe Txobertxun etzie ta behien egon zan estankue Kataliñena esaten otsiena, ta hantxe jaidxo giñen eta bautidxeu San Juanen.
- Zelan deitzen zan ha etzie?
- Txobertxun etzie esaten otsien. Katalin estankue. Ta hantxe jaidxo giñen hiru; Ni, Jose anaidxe eta Consuelo. Ta Alberto Errenteridxen, gaztiena, ta beste bat San Juan Ibarren, hil zana bonbardeoa baiño ariñau. Ostantzien, gure bizidxe hantxe San Juan Ibarren izen da. Ta karo, San Juan Ibarreko hori beti eukitten oskuen Gerniken billur apurtxu bet, zapotxuek izen giñen, bai mutil gaztiek zapotxuek, billurre danak San Juanetik pasetako ta hortik. Joño! kale peligrosue dala ta joño, geiztoak dauzela mutillek eta bueno ba, billurre. Egon zan, ta karo egon zana uneda baten egon zan ba tifuse egon zan itzela, ta han kuadrillie han San Juan kalien egon zan tifuse asko, ta nire lagunek anaidxek etzien, Rikardo Arrienen-eta, batzokidxe euki eben oin Arrien dauen barrien, hantxe egon zan batzokidxe eta nagusidxek esaten otson Rikardori esaten otson: "ez gara joango San Juan Ibarrera han tifuse dau ta, ez zara joango hara e! ta handik pasetan bazara arin paseu e! tifuse dau ta". Asko egon zan. Gure lagune, esaten otsien Gerniken "Barkilleruena" harek be hil zien ez dakitz bi-edo, hantxe-hantxe egon zan tifuse, baia asko. Ta orduen, joño ha geixo txarra izeten zan, tifuse, bueno! kontajidxue eta billurre jentiek. Ta gu han ibiltten giñen, etze zaharrak egoten zien, Calle El puertotik Calle San Juanera pasetan zan etze zahar artien ta bueno! ta hantxe pasetan giñun ta bueno, geixoa bakizu, batzuk hartzen dabe ta urrunetik beste batzuk bertan ibildde bez. Ta hantxe ibiltzen giñen gu.

3. 'Poste elektriko' aguazilari egindako zapokeria

- **Erref**: GER-030/004
- **Iraupena**: 0:04:43. **Hasi**: 00:06:42. **Bukatu**: 00:11:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
San Juan Ibarran, inguruko gazteek zapokeria (gaiztakeria) asko egiten zituzten. Aguazilei ere zapokeria itzelak egiten zizkieten eta ez ei ziren hara askorik hurbiltzen. 'Poste elektriko' aguazila aipatzen du eta harekin bizitako istorio bat. Aguazila etxera joaten zen gurasoei kontatzera eta etxean "propina" izaten zuten. Beste aguazil batzuk aipatzen ditu: Katarro eta Asentzioren aita (inspektorea), besteak beste.

4. Gomazko baloiak

- **Erref**: GER-030/005
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:11:25. **Bukatu**: 00:13:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Jostailu barik jolasten zuten. Baloia bederatzi txakur eta erdiko pilota txiki bat izan zen. San Juan Ibarran, kondeak bizi ziren eta askotan beraien etxeko baloiak osten zituzten.

5. Arana kondearen autoak

- **Erref**: GER-030/006
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:13:27. **Bukatu**: 00:17:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:
San Juan Ibarran Arana Kondearen etxea zegoen. Babeslekua zuen eta erre egin zen. Bertan ondoan kotxetegia zituen eta auto dotoreak zituen. Elizara joateko zaldiak ere bazituen. Behin autoak atera eta bertatik bueltaka ibili ziren. Aguazilek udaletxera eramaten zuten eta isuna jarriko zietela esan, baina ez zuten dirurik.

6. Gomazko baloiak II

- **Erref**: GER-030/007
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:17:57. **Bukatu**: 00:19:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Kondearen seme-alabekin ez zuten harremanik, beraien beldurra zien. Baloiak osten zizkieten, handiagoak ziren haienak. Enriquek-eta Pioren dendan erosten zituzten 9 txakur eta erdi balio zituzten pilota txikiak, baina ez zuten diru askorik izaten.

7. Sokadantza; txorro, morro, piko, taio, ke!

- **Erref**: GER-030/008
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:19:05. **Bukatu**: 00:20:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Iluntzetan neskekin jolasten ziren: sokadantzan eta txorro, morro, piko, taio, kera. Zaharragoak zein gazteagoak denak aritzen ziren elkarrekin.

8. Errekako bainuak

- **Erref**: GER-030/010
- **Iraupena**: 0:04:43. **Hasi**: 00:21:19. **Bukatu**: 00:26:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
"Errekako ugaraxoak" deitzen zieten, errekatik Portu kalerako lehenengo etxeetan bizi ziren. Errekan bainatzen ziren eta bertan aritzen ziren jolasten, bertan ikasi zuten igerian. Han ere gaiztakeriak egiten zituzten. Arratzuko errekako ura garbiagoa zen, eta Lotxin izeneko tokira joaten ziren bainatzera. Neskak ez ziren errekan bainatzen; Muruetapuntara paseatzera joaten ziren eta karramarrotan ere ibiltzen ziren.

9. Bainujantziak erosi beharrean, ostu

- **Erref**: GER-030/011
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:26:02. **Bukatu**: 00:28:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Bainujantziari "taparraboa" deitzen zioten eta bederatzi txakur balio zuen; zelakoak ziren deskribatzen du. Baina ez zituzten erosten, ostu egiten zituzten; eskolara bidean denda kanpoetan eskegita zeudenak osten zituzten.

Transkripzioa
- Zuek trajedebañue-edo eukitzen zenduen?
- Bai! trajedebañue eukitzen zan "noventa y seis"ekoa. Beatzi txakur kobretan eben, taparraboa [esatetsagun] esaten zotsagun. Ta "noventa y cinco"koa. Izen zien baltza ta zuridxe, ta azule ta baltza, ta ralledune, preso moduko trejedebañuek izeten zien. Ta horrek, horrek eukitten eben Piok-eta han, ta dendatan-ta egoten zien. Baiña guk erosi ez gendun eitten trajedebaiñurik e, dendatan eskeitte egoten zien kanpoan, ta eskolara joaten giñenien, falta zanien, tiretu ta boltsillora!
- Ostu?
- Ostu! Bai, ha Pionien eta beste bat esaten zotsiena askok eukitten eben eskeitte, ta joan, eskolara goazenien, faltetan deuenien tiretu eta gorde. Karo, gu paretan giñen, esaten eben: "horrek ein dabe zapokeridxen bat". Ta: "Zuk zemat hartu dozuz", "nik bi", "nik bat". Asike kuadrilla guztidxek beti trejedebaiñue gratis.
- Eta etzien ze esaten otsuen amak-eta?
- Etzera kejetan zanien, palizie. Baia ostantzien, ez. Ez zeben denuntzidxe

edo kejeu, dendakoa ez bazan kejetan, ba geur arte. Eta egoten zien ba eskeitte geuze asko egoten zien, kaltzetiñek-eta eskeitte. Dendak bakizu, lehen dana eskeitte eukitten eben kanpoan. Ta lelengo bat paseten zan, mutiltxu bet, gero bestie, ta gero: "Zuk zemat hartu dozuz?", "nik bat", "nik bi", ta holantxik. Karo, tiretukeran, batzuten etorten zan bat eta beste batzuten bi.
- Zantarrak.
- Beti trajedebaiñu barridxekin. Horixe izten zan zapokeridxe, ez zan, baiña nok eukiotten ban pezeta bat ba? nun emon, ademas trajedebaiñuentzat etzien dirue emon? ariñau eskobie. Keba, ta holantxik izeten zan.

10. Artekaleko eta Andra Maria kaleko dendak

- **Erref**: GER-030/012
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:28:05. **Bukatu**: 00:31:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Gerra aurretik Artekalen zeuden dendak aipatzen ditu: Uriberena, kandelena, fruta-denda, Piorena, Isidoritoren drogeria, Erretxinen okindegia... Andra Maria kalean, Sandalio harategia dagoen lekuan, denetariko gauzak saltzen zituen denda bat zegoen eta kanpoan jartzen zituen gauza asko; Enriquek-eta askotan osten zioten tira eginda. Andra Maria kalean, beste denda zahar bat zegoen eta bertan ere osten zuten. Eskolako maisuari, norbaitek abisua emanez gero, zigortu egiten zituzten.

11. Pasealekuko eskolan ere barrabaskeriatan

- **Erref**: GER-030/013
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:31:54. **Bukatu**: 00:35:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
6 urterekin hasi zen Pasealekuko eskolan, adin ezberdinekoak batera egoten ziren. Nagusiagoek maisuei egindako barrabaskeriak kontatzen ditu: jesarlekuetan jostorratzak jarri, tintontzian txiza egin... Astelehenetan bertako arkupeen kanpoaldean egiten zen azoka, eta soka batean iltze bat jarrita sagarrak-eta lapurtzen zituzten leihotik.

12. Aterkiarekin leihotik salto

- **Erref**: GER-030/014
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:35:46. **Bukatu**: 00:37:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Beraien baino nagusiago batek, Elio Sierrak, behin aterkia hartuta paraxutearena (paracaidas) egin nahi izan zuen eskolako leihotik salto eginda; ipurdiko itzela hartu zuen. Elio Sierraren familiak Industria kalean limonada egiteko lantegia zuen.

Transkripzioa
- Beste baten be holantxik, ta baserrittar joan ta astoak joaten zien ta baten aterkidxe ostu, aterki handi bet, ta handik oin be terrazie dau han, ta behien harie-eta egoten zan, ta: "¡Oye! ¿a que con el paragua hago lo de, lo de esto lo del paracaidas?, ¿a que salto de la terraza esa hasta el suelo?", "¡Que vas a saltar!". Elio Sierra: "Que si salto", "que no", "que si". Joan ta aterkidxe ostu, ta hara joan eskolara errekreue, han goidxen eitten gendun astelehenetan, Santa Klaran han goidxen, ta behien harie apur bet egon zan orduen obran ibil zien-eta. "¡Que salto!", "¡Que no saltas!", "¡Que si!", ta jentie danak begire, ta aterkidxe, ta ein eban, lelengo bai aterkidxek bai ein otson aguante apurtxu bet, baia gero "blast" gorantza ein otsonien /eintsonien/, harek harek hartu eban eperdikoa, bueno! ta salto harek, baia eperdidxe erremen tue ez, ta aurrera. Horrek zien ya mutil handitxuauek, Elio Sierra ta horrek bai. Horrek kalle Industriasen limonadak-eta eitteko fabrikie euki eben euren aittek. Bai, fabrike euki eben. Ta Elio izena, horren ya izen zien hamabi urte. Hamabi-hamalau-hamahiru urtekoak ya mutil handidxek izen zien horrek, horrek izen zien ya mutil, baia zapokeridxek. Lelengotaz ein otson aterkidxek ondo, ta "buf" aguanteu, lelengo golpie, baia barilliek ein otsonien /eintsonien/ gora koño, harek hartu eban eperdikoa, bueno bai.

13. Kaletarrak eta baserritarrak

- **Erref**: GER-030/015
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:37:32. **Bukatu**: 00:38:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Pasealekuko eskolan kaletarrak zein baserritarrak batzen ziren. Kaletarrek zapokeria gehiago egiten zituzten, baserritarrei ez zitzaien horrelakorik bururatzen. Sasoi hartan "semilargoak" ziren prakak janzten zituzten.

14. Pasealekuko maisuak

- **Erref**: GER-030/016
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:38:57. **Bukatu**: 00:40:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:
Maisu erdaldunak zituzten: don Mauro Galán eta don Manuel Alonso aipatzen ditu. Don Mauro gizon handia zen eta behin bere semeari emandako zaplaztekoa gogoratzen du. Maisuak joz gero ez ziren kexatzen eta etxean ere ez zuten protestarik egiten bestela etxean berriro zigortzen zituzten.

15. Asturiasko Iraultza eta greba

- **Erref**: GER-030/017
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:40:48. **Bukatu**: 00:42:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Errepublika sasoian Asturiasen iraultza egon zenean, greba handia egon zen. Ez zen ogirik egiten eta itsasoz eramaten zuten ogia Bermeotik bideetan konfiskatu egiten zuten eta.

16. Errepublika sasoian langileak ondo bizi ziren

- **Erref**: GER-030/018
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:42:03. **Bukatu**: 00:44:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Errepublika sasoiko bizimodua normala zen, ondo bizi ziren, lan asko zegoen eta jendea langilea zela dio. Lizeo ondoan Iruña taberna zegoen eta langileek han "kafe konpletoa" hartzen zuen eta San Juan elizaren kontran zegoen 'Txinoana' deituriko tabernan jaten zuten. Astra arma-lantegian ondo irabazten zen, 8-10 pezeta eguneko. Taberna Vascan eta Txinoanean 2.5 pezetagatik hartzen zuten ostatu behargin askok. Makazagak ere San Juan Ibarran izan zuen ostatua. Soldata onak zeudenez gernikarrak ondo bizi ziren eta kalean igartzen zen. Eibar aldetik heldu ziren asko eta asko, Enriqueren aita ere horrela heldu zen.

17. Abarka-denda eta esnetegi garrantzitsuak

- **Erref**: GER-030/019
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:44:31. **Bukatu**: 00:46:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Gerra aurretik jende askok abarka-dendetan egiten zuen lan, eta dirua asko ematen zuten. Esnetegia ere oso famatua izan zen, gaur egun Lidl supermerkatua dagoen tokian zegoen; gaztak eta gozoki oso gozoak egiten zituzten. Andrazkoak ere aritzen ziren lanean, bai behar horietan baita arma-lantegian ere.

18. Eibar inguruko asko arma-lantegira etorri ziren

- **Erref**: GER-030/020
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:46:12. **Bukatu**: 00:47:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:
Eibar aldetik behargin asko heldu ziren, gehienak arma-lantegira; arma-eskolatik ikasita zetozen. Bertako ugazabak ere, Unzetatarrak, inguru hartakoak ziren. Alkartasuna izeneko soziedade bat ere egon zen arma-lantegiko langileek sortutakoa, hura erre zenean sortu zuten Astra.

19. Limonada lantegiak

- **Erref**: GER-030/021
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:47:35. **Bukatu**: 00:49:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Gerra aurretik, Industria kalean limonada egiteko lantegi bat zegoen, Gernika garagardotegia dagoen lekuan, eta San Juan Ibarran ere bazegoen beste bat. Azken hau, Berrojalbizena, garrantzitsua zen eta baserriz baserri banatzen zuten edaria. Kanikadun botilak izaten ziren. Familia-enpresak ziren, langile gutxikoak. Errenterian ere egon zen beste bat.

20. Kaleko baserriak eta kortak

- **Erref**: GER-030/022
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:49:27. **Bukatu**: 00:50:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Gerra aurretik herri txikia zen, 4.000 biztanle ingurukoa. Ateak txaramela izaten zuten eta edonor sartu zitekeen etxeetara. Kalean ere bazeuden kortak: Lizeo aurrean Urremendikoek idiak zituzten; San Juan Ibarran Pascuala erregaterarena eta Felix Orberena. Felix Orbek sagardoa egiten zuen, Kortezubiko Goiburun egiten zuen eta udan lonjan saltzen zuen.

21. Agirre Lehendakaria etorri zeneko istiluak

- **Erref**: GER-030/028
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:55:00. **Bukatu**: 00:56:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:
Jose Antonio Agirre Lehendakaria juntetxera etorri zenekoa kontatzen du. BBK banketxea dagoen lekuan Norte taberna egon zen eta han aurrean egon ziren autobusak kanpotik etorritako jendearekin. Kaleak jendez lepo zeudela, juntetxean istiluak egon ziren eta "Guardia de asalto"ak agertu ziren. Gazteek korrika egin zuten baina nagusiagoak porraz jo zituzten.

22. Arto-bizarrak eta patata-orriak erretzen

- **Erref**: GER-030/029
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:56:15. **Bukatu**: 00:58:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Bonbardaketan 12 urte zituen. Mertzeden eta Agustinoetan kuartela zegoen. gazterik hasi zen erretzen. Gerran tabakorik ez zegoenez arto-bizarrak eta patata-orriak erretzen zituzten.

23. Bonbardaketa hasiera

- **Erref**: GER-030/031
- **Iraupena**: 0:04:07. **Hasi**: 00:58:47. **Bukatu**: 01:02:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gerran, abioiak hurbiltzen zirenean, Aizerrota menditik bolanderak botatzen zituzten. Babeslekuak hareazko zakuekin eta enborrekin egiten ziren. Hainbat

babesleku egon ziren. Bonbardaketan bera pinu baten azpian babestu zen. Inguruko lehenengo hildakoa trenbide ondoko txabola bateko Emilio 'Patxarrota' izan zen. Lehenengo bederatzi bonba bota zituzten eta beraien etxea orduan bota zuten: auzoko batzuei etxea gainera jausi zitzaien eta bertan hil ziren, Pascuala errekardaria eta Felix Orbe izan ziren.

24. Bonbardaketan trenbidetik Forurantz

- **Erref**: GER-030/032
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 01:02:54. **Bukatu**: 01:06:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Lehenengo bonben ostean, 3 minutuko tarte bat-edo egon zen eta trenbide aldera jo zuten korrika, Foru aldera. Hegazkinak baxu pasatzen ziren metrailatzen. Beraiek zortea izan zutela dio, ez zuten etxeko inor galdu. San Juan Ibarrako jendea erreka izkinara joan zen babes bila, plaza guztia txikitu zuten-eta. Hurrengo egunean, Foruko harrobiko kobazuloetan egon ziren Gernika berriro bonbardatuko zutelakoan.

25. Suteetatik ke-lainoetara

- **Erref**: GER-030/033
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 01:06:06. **Bukatu**: 01:09:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Bonbardaketaren ostean, Forutik Gernikara bueltatzerakoan, jesuiten etxe zahar batean igaro zituzten lehenengo bi gauak. Bonbardaketan hildako lagun batzuen izenak aipatzen ditu. Andra Maria kaleko babeslekuan handik hilabete batzuetara oraindik gorpuzkinak zeudela dio. Arana kondearen etxean ere jende asko erre zen. Inork ez ei daki zenbat pertsona hil ziren herrian. Inguruetarantz zihoazenak metrailatu egiten zituzten. Dena egon zen sutan. Hasieran guztia zegoen erretzen, baina gero keeta handia zegoela dio. Udaletxe ondoko pare bat etxe eta San Juan eliza bigarren egunean oraindik erretzen zeuden.

26. San Juan eliza

- **Erref**: GER-030/034
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 01:09:51. **Bukatu**: 01:11:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:
Beraien eliza San Juanekoa izan arren eta mezara bertara joan arren, dotrinara Andra Marira joaten zen eta bertan egin zuen jaunartzea. San Juan eliza zelakoa zen kontatzen du; eliza guztiak bezalakoa zen, baina ez zuen erlojurik. San Juan pobreen eliza zela dio, Andra Maria ostera, aberatsena.

27. Portua, Idiga ontziola eta arrantza

- **Erref**: GER-030/035
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 01:11:55. **Bukatu**: 01:14:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:
San Juan Ibarran portua zegoen eta Idigan ontziola. Ontziola horretan 'Begoña' izeneko belaontzi bat egin zuten. Erreka lehen garbia zen, arrankariak zein angulak egoten ziren. Arrantzan aritutakoa da Enrique, bere aitarekin zaletu zen. Bere aitak 3 tabernatan saltzen zuen arrantzatutakoa perretxikoekin eta karakolekin batera; bera aritzen zen horiek banatzen.

28. Perretxikotan

- **Erref**: GER-030/036
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 01:14:43. **Bukatu**: 01:16:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila

Laburpena:
Perretxikotan Nabarnizera joaten zen aitarekin batera eguzkiak irten aurretik, Burgoan ere hartzen zituzten. Onddoak, urdinak, "setak", "lengua de vaca" eta urretxak aipatzen ditu, onenak eta politenak saldu egiten zituzten. Perretxiko kaltegarriak bareek ere ez zituzten jaten.

29. Urremendi baserrira bizitzen

- **Erref**: GER-030/038
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:18:10. **Bukatu**: 01:19:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Nazionalak sartu zirenean, Urremendi baserrira joan ziren eta bertan igaro zituzten 8 bat urte. Obietatarrena zen etxea eta baserriko lanetan orduan hasi ziren. Sindikatuko etxeak (Kaltzada egoitza aurrekoak) egin arte egon ziren han eta bertan bizi izan zen 85 urtera arte.

30. Gerra osteko eskola: Francorena

- **Erref**: GER-030/040
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 01:21:38. **Bukatu**: 01:23:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Gerra ostean berriro hasi zen eskolara. Lehengoarekin alderatuz dena zen Francorena, sartu aurretik Cara al Sol abestu behar zuten. Gutxi ikasi zutela dio. Nazionalek herri bat hartzen zuten bakoitzean jai izaten zuten. Don Manuel Alonso izan zen maisua. 14 urtera arte ibili zen eskolan.

31. 'Iturri' ezizenaren jatorria

- **Erref**: GER-030/043
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 01:26:25. **Bukatu**: 01:29:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Gernikan ezaguna izan arren jendeak ez daki bere abizena Aranzabal denik, Iturri ezizenez baita ezaguna. Bere aitaren aita zen Elgetako Iturri baserrikoa. Bere aitaita Elorriora joan zen eta han jaio eta hazi zen bere aita.

32. Jesuitetako eta agustinoetako eskola eta zinea

- **Erref**: GER-030/049
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 01:35:03. **Bukatu**: 01:37:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Gerra aurretik, jesuitek anbulatorio ondoan zeukaten etxean zinea egoten zen. Baina bera gehiago joaten zen agustinoetara, han jolaslekua zegoen, eta Padre Bikuñak zinea ematen zuen eskolaz gain. Gernikar asko joan ziren bertako eskolara, 2 pezeta ordaindu behar izaten zen hilabetean. Bere lagun Jose Ramon Ormaetxea aipatzen du, mezetan kantatzen zuen eta oso ondo gainera.

33. Arrien taberna

- **Erref**: GER-030/052
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 01:39:11. **Bukatu**: 01:40:31

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Tailerrean lanean hasi zirenean, Arrien tabernara joan ziren eta praka laburretan zeudela eta umeak zirelakoan tabernatik irteteko esan zien bertako ugazabak. Gaur egun taberna dagoen lekuaren atzean, barrualdeko patioko etxetxu bat zegoen Kaixao tabernaren ondotik sartzen den garajeetan, eta bertan zegoen taberna eta jatetxea.

34. Gerra aurreko tabernak eta kafetegiak

- **Erref**: GER-030/053
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 01:40:31. **Bukatu**: 01:42:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Gerra aurreko tabernak: Barrenkaleko Sangroniz eta Solloa, Artekaleko Katalin, txakolindegia eta sagardotegia, San Juaneko Txinoarena eta Makazagarena. Kafetegiak: Norte Adolfo Uriosten, Industria kaleko Café moderno, Iruña eta Katarro Ocho de Enero kalean, San Juan kaleko Artoa 'Txorixona'. Geltokian Julian hotela zegoen.

35. Gerra aurreko gasolindegiak

- **Erref**: GER-030/054
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 01:42:56. **Bukatu**: 01:44:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:
Ocho de Enero kaleko katarro kafetegiaren aurrean gasolindegia egon zen gerra aurretik. San Juan elizaren aurrean beste bat zegoen, beraiek 'Matronarena' deitzen zioten, Kike Dublang medikuaren izekoak zuen. Saraspeko gasolindegia okindegia dagoen tokian zegoen.

36. "Barrio chino"

- **Erref**: GER-030/055
- **Iraupena**: 0:00:29. **Hasi**: 01:44:24. **Bukatu**: 01:44:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Saraspe ondoan, "Barrio chino"n Guardia Zibilaren kuartela egon zen. Zonalde hori ez zen erre, hori dela-eta gernikar asko horra joan ziren bizitzera eta txinatarrak bezala bizi zirenez -pilatuta- izen hori jarri zioten.

37. Frontoi zaharra

- **Erref**: GER-030/056
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 01:44:53. **Bukatu**: 01:47:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Industria kalean zegoen frontoia bonbardaketa ostean nahiko ondo egon zela dio, baina ez zuten konpondu. Enrique-eta jendearen artetik sartzen ziren ordaindu gabe. Jose Luis Garciaren aita eta Txobertxu ziren atezainak eta harrapatuz gero kanpora botatzen zituzten. Mateo de la maza zen bertakoa intendentea. Aurreko tabernan bingoa egoten zen. Zine mutua 3 txakur txikigatik ematen zuten frontoian. Aratusteetan dantzaldiak egiten ziren.

38. Gerra aurreko aratusteak

- **Erref**: GER-030/057
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 01:47:53. **Bukatu**: 01:50:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:
Gerra aurretik ospatzen ziren aratusteak. Pasealekuko arkupeetan ospatzen ziren. Forum kirol-denda dagoen tokian, 'Txardelo'k denda txiki bat zuen eta trajeak alokatzen zituen. Egunez Pasealekuan egiten ziren ospakizunak bukatu ostean, gaueko hamarretan frontoi zaharrera joaten ziren.

39. Dantzan egiteko ordaindu egin behar

- **Erref**: GER-030/058
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 01:50:46. **Bukatu**: 01:52:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Dantzan egiteko ordaindu egin behar izaten zuten mutilek. Mutilak hurreratzen ziren neskengana dantzan eskatzera. Urriko azken astelehenetan inguruko neskak etortzen ziren eta oso gogoko zuten egun hori.

40. Gerra aurreko urriko astelehenak

- **Erref**: GER-030/059
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 01:52:14. **Bukatu**: 01:55:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Gerra aurreko urriko azken astelehenetan baserritarrak gurdiekin hurbiltzen ziren herrira. San Juan kalean, zubitik Bermeorako bideraino, postuak zakuz beteta egoten ziren. Erregatera asko etortzen ziren Bilbotik, gero bertan saltzeko. San Juan Ibarran erromeria egoten zen, kanpotik etortzen ziren soinu-jotzaileak. Hiru-lau erromeria egoten ziren korro ezberdinetan. Korro bakoitzera sartzeko mutilek ordaindu egin behar izaten zuten.

41. San Juanak

- **Erref**: GER-030/060
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 01:55:42. **Bukatu**: 01:57:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:
San Juan bezpera gauean erreka izkinan egiten zen sua, eta bezperan eta egunean bertan Gernikako banda egoten zen; banda ez baldin bazan egoten, erromeria egoten zen. Etxerik etxe joaten ziren altzari zaharrak batzen sua egiteko.

42. Gabonetan eta Santa Agedatan abesten

- **Erref**: GER-030/061
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 01:57:51. **Bukatu**: 01:59:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:
Santa Ageda egunean ez zuten abesten, baina urte berritan eta Errege egunean bai. Zinerako dirua ateratzen zuten. Gerra aurretik Santa Agedatan kuadrilla asko irteten ziren kantatzen: Makazagarena, Briñasena, Totorikarena, Joaneterena...

43. Gabonak

- **Erref**: GER-030/065
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 02:02:07. **Bukatu**: 02:03:12

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:
Gabonetako kaleko denden erakusleihoetan egoten ziren pastelei begira, gozo-denda guztiek egiten zituzten gozokiak.

44. Errekarako ontzia eraiki zutenekoa I

- **Erref**: GER-030/066
- **Iraupena**: 0:05:22. **Hasi**: 02:03:12. **Bukatu**: 02:08:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
San Juan Ibarreko umeek errekan ibiltzeko ontzi handi bat egin zuten; zelan eraiki zuten kontatzen du zehaztasun osoz. Materiala aroztegietan ostu zuten. Ez zieten sinistu beraiek bakarrik egin zutenik.

45. Errekarako ontzia eraiki zutenekoa II

- **Erref**: GER-030/067
- **Iraupena**: 0:06:06. **Hasi**: 02:08:34. **Bukatu**: 02:14:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:
San Juan Ibarreko umeek errekan ibiltzeko ontzi handi bat egin zuten; zelan eraiki zuten kontatzen du zehaztasun osoz. Materiala aroztegietan ostu zuten. Ez zieten sinistu beraiek bakarrik egin zutenik. San Juan suetan, errek izkinako erramak-eta batzeko ontzia erabiltzen zuen; horrela, erreka garbi mantentzen zen. Ontzia zubipean egoten zen. Bonbardaketan bertara erori zen metrailatutako gizon bat. Nazionalak sartu zirenean, beraien botea italiarrek erabiltzen zuten itsasadarraren alde bien artean garraiatzeko.

46. Montefuerte kondearen pinuekin egindako babeslekua

- **Erref**: GER-030/070
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 02:20:11. **Bukatu**: 02:21:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Euskal Herriko museoaren atzealdeko arbolekin egin ziten gerrarako

babeslekua, Montefuerte kondearen pinuekin. Baina lehergailua handiago izanez gero ez zuen ezertarako balio.

47. Herria berreraikitzen

- **Erref**: GER-030/075
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 02:25:18. **Bukatu**: 02:27:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Bonbardaketa ostean herri garbitzeko eta berreraikitzeko, hasieran presoak ekarri zituzten. Enrique bera azoka eta Banco de Vizcaya eraikitzen ibili zen arotz bezala. Altxatu ziren lehenengo eraikinak zeintzuk ziren aipatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-26

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com